

Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1932'ko Joñailaren 28'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Olabide, Kanpion, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Elissalde ta Ormaetxea urgazlea. Otoitz egin da.

1.º Azkue jaunaren aribidez, Euskaltzaindiak erabaki du : Bidangoz'en, Mariano Mendigatxa euskaldun jaun zintzoaren oroimenez, onentxen etxean, oroiari bat ipintzea : Ontarako eguna aukeratuko da eta euskaltzain jaun bat bederik, an izango da.

2.º Aita Intzak irakuri dizkigu aita Iraizoz'ek bildutako itzak. Oraingo abek Joannes Etxeberi'ren liburutik jasoak dira.

3.º Azkue jaunak, Euskalerian, an eta emen bildutako *modismos* eta *esakunak* irakuri dizkigu.

Ta beste gai batzuek urango batzaraldirako utzirik otoitzez amaitu da.

Iruña'n, Aldundi-Jauregian, 1932'ko Joñailaren 29'an.

Jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Kanpion, Olabide, Intza, Lakonbe, Elissalde ta Ormaetxea. Otoitz egin da.

1.º Azkue jaunak *Modismos*'en lana irakurtzen jaraitu du.

2.º Azkue berak, Olerki-gutun bat irakuri digu : urgazle batek idatzia da. Urgazle au, *Iruñalde*'ren izenez ostendua, Lafitte jauna da.

3.º Labayen Andoni jaunak, Tolosan argitara-